

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

GETARIAKO UDALA

*Getariako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala (XVIII Potzuaga-Gaina Eremua). Hasierako onespena.*

Udalbatzak, 2024ko urriaren 29ko ezohiko bilkuran, honako erabakia hartu du:

*Lehena.* Hasierako onespena ematea Getariako Arau Subsidiarioetako XVIII Potzuaga Gaina hirigintza-eremua dagokion Arau Subsidiarioak aldatzeko dokumentuari. Onartutako dokumentua 2024ko irailean idatzia da, Santiago Peñalba arkitektoak zuzendutako taldeak idatzia; 2024ko irailean idatziriko ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera doa, lantalde berdinak idatzia.

*Bigarrena.* 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 85.3 artikuluan jasotako baldintzetan, hirigintzako onarpen, baimen eta lizentzia guztiak bertan behera uztea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan.

*Hirugarrena.* Behin-behineko onarpenaren aurretik, udal arkitektoaren txostenean 4.1 atalean jasotako zuzenketak jaso behar dira.

*Laugarrena.* Espedientea jendaurrean jartzea, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzen. Jendurreko epea 45 egunekoa izango da, eta erakustaldiaren izapidea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, probintzian gehien zabaltzen den egunkarian, eta Udalaren web orrian jakinaraziko da.

Guztiak jakin dezaten adierazten da.

Getaria, 2024ko urriaren 30a.—Haritz Alberdi Arrillaga, alkatea. (7954)

AYUNTAMIENTO DE GETARIA

*Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Getaria (Área XVIII Potzuaga-Gaina). Aprobación Inicial.*

La Corporación Municipal, en sesión extraordinaria celebrada el día 29 de octubre de 2024, ha adoptado el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar inicialmente el documento de modificación de las Normas Subsidiarias correspondiente al ámbito urbanístico XVIII Potzuaga Gaina de las Normas Subsidiarias de Getaria. El documento aprobado, redactado en septiembre de 2024 por el equipo dirigido por el arquitecto Santiago Peñalba; acompaña al documento ambiental estratégico redactado en septiembre de 2024, redactado por el mismo equipo de trabajo.

*Segundo.* En los términos recogidos en el artículo 85.3 de la Ley de Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006, establecer la suspensión de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias urbanísticas en los ámbitos en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

*Tercero.* Con carácter previo a la aprobación provisional deberán recogerse las correcciones recogidas en el apartado 4.1 del informe técnico redactado por el Arquitecto Municipal.

*Cuarto.* Someter el expediente a información pública para que cualquier interesado pueda formular las alegaciones que estime oportunas. El plazo de información pública será de 45 días y el trámite de información pública se hará público en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, diario de mayor difusión de la provincia, y en la página web del Ayuntamiento.

Lo que se publica para general conocimiento.

Getaria, a 30 de octubre de 2024.—El alcalde, Haritz Alberdi Arrillaga. (7954)